



Eman hegoak euskarari



Bi bertso jaso genituen oso denbora gutxian

Zer punturaino dago baimenduta bertsolari bat entzuleak iraintzeko?

ARITZ GORROTXATEGI

Donostian ospatzen zen kanporaketan, Ander Graun bertsolariak Gipuzkoako hiriburua hartu zuen hizpide agurrean, eta bazter guztietako entzuleek entzuteko moduan aipatu zituen 'kaxkarin', 'aberaskume', 'Culinary Center' eta 'euskara-kakatu' hitzak. Askok barre egin zuten bertsoarekin eta ateraldiarekin, baina donostiar bertsozale ba-tzuk ozpinduta eta minduta atera ziren saiotik, eta Bertsozale Elkartearengana jo zuten, halakorik ezin zela onartu argudiatuz, Ander Graunek donostiar euskaltzale guztiak iraindu zituela, euskara bera gutxietsi zuela. Bertsozale Elkartearen animoak baretzen saiatu zen, baina komunikabideetan

eta inkomunikabideetan piztutako eztabaida apurak erabat aldrebestu zuen kontua, kexu ziren bertsozale horiek auzitegiatara bultzatzeraino. Benetako auzitegiez ari gara, togadun epaileak dituzten horiez, ez bertsoak epaitzen dituzten afi-zio natuez. Izen ona eta ohorea aipatu ziren delitu gisa. Auzia bere bidea egiten ari da instantzietan gora, huntza bezala, eta euskaldunen artean ere nabarmen egin du gora kezkek, lurrun bihurtu eta amorrutzko zirimiru bihurtzeraino. Zer punturaino dago baimenduta bertsolari bat entzuleak iraintzeko? Non hasten da iraina eta non burla? Zein neurritaraino bihur daiteke antzele, gezurti, bufoi edo heretiko?

Jakingo duzue, Bertsozale Elkarteak bertan behera utzi du Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia epaileek beren iritzia edo, hobe esan, epaia arte. Polemista anonimo batek intenzio osoz azpimarratu du bertsozaleak ez omen zirela horren sentikorak erakunde armatu batek bertako herritarrak erailtzen zituenean. Jakina, iruzkin horrek gaitzespen ilara luzea ekarri du eta euskalduntasunaren aurkako eraso larritzat eta faxistatzen hartua izan da. Erasoaren larritasuna erakusteko, bertsolari ezagun batek bere biografiaren berri eman du irratian, bere bizitzaren pasarteak eta arestian aipatu erakunde armatuko kide baten gorabehera penitentziarioak

bertso batean erkatuz. Irratiak berehala zentsuratu du bertso hori, biktimak irainduta senti zitezkeelako. Egia da bertsoak, berez, ez zuela akaso terrorismoaren gorazarre egiten, baina, zenbait adituren iritzian, mingarria ere bada euskararen munduak erakunde armatu horrek eragin dituen biktimekiko behin eta berriz erakusten duen errespetu eta sentikortasun falta. Protesta gisa, beste bertsolari batek bere biografiaren berri eman du GALeko auzian zigortutako arduradunetako baten presondegi-soslaia eginez. Ez dakigu garbi zertara etorri den azken protesta hori, baina hautsak harrotu ditugure mundu txikian, eta ez dio ia inori graziarik egin, gure herria ez baita gauzak barkatzen dituen horietakoa.

Hori gutxi balitz, bertsolari gazte bat atera da sareetan adierazpen esanguratsu batzuk eginez. Oholtzan bere lekua topatu gabe jarraitzen duela, oso biolentzia omen dela bertso mundua, eta ezinezkoa dela hegemonia hiperestankor horri ihes egitea. Are gehiago, bertsolari gazte horren ustez, sinetsarazten dizute gau-

zak aldatzen ari direla, egoera supererosoa dela denontzat, baina betiko mierda da, politago pintatuta. Euskalgintzaren polizoi anonimo batek aitortu digunez, hainbatek pentsatzen duena ozen esatera ausartu da gazte hori, baina gure errealitatea seta eta errepikakorra dela frogatzeko, arestian aipatutako bertsozale talde horrek beste salaketa bat jarri du bertsolari gazte horren aurka euskarari eraso egiteatik, are gehiago Euskararen Eguna horren hurbil edukita.

Labur esanda, Euskal Herriko Bertsolari txapelketa etenda dago, eta auzitegiak jo eta su ari dira lanean. Euskararen alde? Euskararen kontra? Euskaldun askok darabilten galdera eta zalantza da. Zerk egiten dio mesede euskarari, zerk kalte. Ba al da azken aldiko bertso eta adierazpen horiek lotzen dituen arrazoi ilun edo gorderik? Kartzelako lan asko genuen lehen, eta ganbarako lan gehiago orain. Edo ganbararako lana edo ganbaratik gaudela, zuek erabaki. Azkenean, badirudi zuzentasun politikoak larriki zauritu duela gure bertso mundua.

Eztarrian, Gernika

JON MARTIN-ETXEBESTE

Mikel Laboa katedraren bultzadaz ekiztitzitako lan hau delizia bat da. Irakurlea lehenengo orrialdeetatik jabetuko da zein punturaino xehe eta magiko deskribatuta dagoen Laboaren bizitza: Donostiako Erviti denda fidelki marraztua ageri da, baina aldi berean western baten parte irudikatua, eta errealismo fantastikoaren gozamenaren errendituko da. Literaturaren eta artearen ikuspuntutik komikia maiz gutxietsi izan bada ere, haren artea goren mailara jaso dago liburu honetan. Keinu agerikoak eta ezkutukoak uztartzen ditu. Euskal kulturako erreferenteen aurpegiak nonahi, lehen irakurraldian nekez harraipatzen diren zenbait pintzelkada txiki... Euskal kulturarako hain garrantzitsua izan zen kantagintza berriren aroa ilustratzeaz gain, arteko hainbat korronte ere integratzen ditu: Magitteren sagar atzeko gizona,

Picassoren 'Gernika' Zumetaren koloreekin, Oteizaren apostoluak... Gutxitan izan dira hain espresiboak magenta, ziana eta horia.

Josevinskyren ilustrazioak nabarmen diren, bistan denez. Horri gehitzen bazaio testuaren zati asko Laboaren esaldiak eta inguruko aipuak direla, pentsa liteke itzalean geratzen direla gidoilariak; baina aurkakoa defendatu liteke: jendarteak hainbeste ezagutzen duen kantari baten biografia hain hitz gutxira sintetizatzeak maiulan bihurtzen du liburua. Hitzek prota-gonismo handia dute liburu honetan, baina berariaz soilduta daude; soberako hitzik gabe gionizatu dute Iturriagak eta Canok, irakurketa ez-hitzezko baliabideetara bideratuz. Laboaren sormenean giltzarri izan ziren momentuak harrapatu dituzte. 1936ko bombardaketak, Laboa artean haur bat zela Lekeitiotik bizi izan zuenak, pisu emozional asko du liburua. Marixol Bastidarekin izan zuen bikote harremanak istorio osoa zeharkatzen du eta haren bertsoia da Ez Dok Amairuren sorrera kontatzen duena. Lilura besterik ez.



NI EZ NAIZ MIKEL LABOA
U. ITURRIAGA, H. CANO, J. LARRATXE
Elkar. 128 orr. 22 euro

LABUR LABUR

The Chemical Brothers Bilbao BBK Liven ariko da

EL CORREO

Bilbao BBK Live jaialdiak 24 izen gehiago iragarri ditu uztailearen 6, 7 eta 8an Kobetamendin egingo den jaialdirako. Besteak beste, Florence and The Machine, The Chemical Brothers eta The Blaze taldeek ere joko dute, Arctic Monkeys iragarrita zegoen taldearekin batera. Hala ere, Kobetamendiko agertoki gainean egongo dira The Lathums, 070 Shake, Tinariwen, Love of Lesbian, Ben Yart, Albany, Rojuu, Delaporte, Playback Maracas, Baiuca, Arde Bogotá, Colectivo Da Silva, Merina Gris eta Bengo.

Basoa dantzarako musikaren esparruak ere hainbat artista iragarri ditu: Young Marco, Job Jobse, Ben Ufo, Dinamarca, Call Super eta Violet. Jaialdiaren irudiaren ardatza Supereuskadi Vicente Paredes alacantarraren argazki saiakera izango da,



The Chemical Brothers.

argazkilariaren begiradaren bidez euskal kultura eta gizartearen erakusten dituen.

Bonuak salgai daude dagoeneko, jaialdiaren webgunean, 159 euroan, eta 20 euro gehiagoan, campingerako sarbidea eduki nahi izanez gero. Gainera, antolatzaileek errepikatu dute sarrera bakoi-tzeko 3 euro bideratuko dituztela Balmasedan suak kiskalitako eremua berreskuratzen.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Azken Etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

2 M. Ama Eme Ume

Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

3 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 Izurdeen aurreko bizitza

Kirmen Uribe. Susa

EZ FIKZIOA

1 Gureak ere badira

Lur Albizu/Eraiz Saez de Egilaz. Txalaparta

2 Barbaroak eta zibilizatuak

Ibai Atutxa. Txalaparta

3 Ganorexia

Iñaki Seguro. Alberdania

4 Begiak zabalduko zaizkizue

Iraiti Jimenez. Elkar